

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

HERNANIKO UDALA

Arte sorkuntzarako dirulaguntzak 2022. Oinarriak. BDNS (Identif.): 655128.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/655128>).

2022ko urriaren 20an egin zen Tokiko Gobernu Batzarrak, erabaki zuen diru-laguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak eta deialdia onartzea.

Arte sorkuntzarako 2022. urterako dirulaguntzak arautzeko oinarriak eta deialdia.

Onuradunak: Dirulaguntza hau lor dezakete kultur eremuren batean diharduten edo hasi nahi duten pertsona fisikoek zein elkarteek.

Horretaz gain, eskatzaileak nahitaez egiaztatu beharko du, dirulaguntza eskatzeko datan, adin nagusikoa dela. Ezingo dira diru-laguntzaren onuradunak izan azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzetako Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako egogaren batean dauden pertsona edo entitateak.

Helburua: Deialdi honen helburua da Hernaniko artistei plastikoek sorkuntza prozesuetan laguntzeko dirulaguntzak eskatzeko eta emateko prozedura arautzea.

Arte plastikoek Hernaniko kaleetan duten presentzia areagotu nahi da. Kalean egingo diren sorkuntza hauetan teknika artistiko hauek erabil litezke: pintura, eskultura, graffiti, mosaikoa, collagea...

2022ko deialdi honek artea auzoetara eramatea du xede, eta horrela, aurkeztutako obren proposamenak Hernaniko auzo bati lotuta aurkeztuko dira, hau da, auzo horren nortasunari eta ezaugarriei egokituta.

Teknika artistikoen erabilera librea da eta espazio publiko zein pribatuetan kokatzeko aukera dago. Espazio publikoen kasuan, Hernaniko Udalak berretsiko du leku egokia den, eta pribatuen kasuan, nahitaezkoa izango da bizilagunen edo jabeen baimena izatea.

Dirulaguntza hauen helburua da sortzaileei beraien obra soru eta gauzatzeko laguntza ekonomikoa ematea.

Kopurua: Udalak dirulaguntza honi gehienez 10.000,00 € eskainiko dizkio. Proposamen bat baino gehiago aukera litezke dirupartida bukatu arte.

Balioespen batzordeak erabakiko du zenbat dirulaguntza eman eta zenbatekoak.

Edozein kasutan, dirulaguntzaren zenbatekoa inolaz ere ez da izango hura bakarrik hartuta edo beste Administrazio Publi-

AYUNTAMIENTO DE HERNANI

Subvenciones a la creación artística 2022 bases. BDNS (Identif.): 655128.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/655128>).

Con fecha de 20 de octubre de 2022, la Junta de Gobierno Local, acuerda aprobar las bases generales y la convocatoria para la concesión de las subvenciones.

Convocatoria y bases reguladoras para la concesión de subvenciones a creación artística. 2022.

Beneficiario: Podrán optar a esta subvención las personas físicas o asociaciones que trabajen o deseen iniciarse en algún ámbito cultural.

Además, será requisito indispensable que la persona solicitante acredite, en la fecha de solicitud de la subvención, que es mayor de edad. Asimismo, no podrán ser beneficiarias las personas o entidades en quienes concurra cualquiera de las circunstancias previstas en el apartado 2 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Finalidad: La presente convocatoria tiene por objeto regular el procedimiento para la solicitud y concesión de subvenciones dirigidas a apoyar al colectivo de artistas de Hernani en los procesos de creación.

Se pretende incrementar la presencia de las artes plásticas en las calles de Hernani. En estas creaciones a pie de calle se pueden utilizar las siguientes técnicas artísticas: pintura, escultura, graffiti, mosaico, collage.

Esta convocatoria de 2022 tiene como objetivo llevar el arte a los barrios, y así, las propuestas de obras presentadas se presentarán vinculadas a un barrio de Hernani, es decir, adaptado a su identidad y características.

El uso de técnicas artísticas es libre y se puede ubicar en espacios tanto públicos como privados. En el caso de los espacios públicos, será el Ayuntamiento de Hernani el que ratifique si se trata de un lugar idóneo, mientras que en el caso de los privados será obligatorio contar con el permiso de los vecino-as o propietario-as.

El objeto de estas subvenciones es apoyar económicamente a lo-as creadore-as para la creación y ejecución de su obra.

Cantidad: El Ayuntamiento concederá a esta subvención un máximo de 10.000,00 €. Se podrán elegir varias propuestas hasta el final de la partida económica.

La Comisión de Valoración determinará el número y cuantía de las subvenciones concedidas.

En ningún caso el importe de la subvención podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con ayudas o sub-

koek, edo beste Erakunde publiko eta pribatuek emaniko laguntza edo dirulaguntza batekin batuta onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez, diruz lagun daitekeen inbertsioaren balioaren % 100 artekoa izango da. Diru partidak ez badu onuradunari eskatutako diru kopurua emateko aukerarik ematen aurrekontua eta proiektua egokitzeko eskatuko zaio, egokitzapen hori egiteari uko egin diezaioke onuradunak.

Epeak: Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Pertsona edo kolektibo interesdunek udalaren web orrian aurkitu dezakete informazio zehatza:

<http://www.hernani.eus/eu/dirulaguntzak>.

<http://kultura.hernani.eus/eu/dirulaguntza-lehiaketak>.

Eta Herritarren Harrera Zerbitzuan (hhz).

Hernani, 2022ko urriaren 20a.—Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, alkatea. (6652)

venciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la persona o entidad beneficiaria.

La cuantía máxima de la subvención será hasta el 100 % del valor de la inversión subvencionable. En el caso de que la partida no permita la concesión de la cantidad solicitada por la persona o entidad beneficiaria, se le requerirá para que ajuste el presupuesto y el proyecto, la persona o entidad beneficiaria podrá negarse a realizar dicha adaptación.

Plazos: El plazo de presentación de solicitudes será de un mes partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La información detallada se encuentra a disposición de las personas o colectivos interesados en la página web del ayuntamiento:

<http://www.hernani.eus/es/subvenciones>.

<http://kultura.hernani.eus/es/subvenciones-concursos>.

Y en Servicio de Atención al Ciudadano (hhz).

Hernani, a 20 de octubre de 2022.—El alcalde, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. (6652)